Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Maria Ubillos Atxukarro

Urnieta, Gipuzkoa
(1925-2022)



Aurkibidea

Biografia



Urnietako Goiburu auzoko Pagolaerdi baserrian jaio zen eta beheragoko baserri batean bizi izan da azken urteetan. Aurretik bi anaia bazituen ere, bera zen alaba zaharrena, eta lan asko egin behar izan du etxean, atzetik beste bost senide baitzituen. Amona ere eurekin bizi zen eta osaba elbarri bat ere bai. Osabak abarkak eta alpargatak egiten zituen eta haiei ere erakutsi zien nola egiten ziren. Oinetakorik, beraz, inoiz ez zitzaien falta izan. Hamalau urtera arte Goiburuko eskolan ibili zen ahal zuen bezala, eta goizeko seietarako elizara nola joaten ziren gogoan du oraindik. Ama zenak Donostian saltzen zuen esnea eta babarruna, eta beraiek behin baino gehiagotan bazkaltzen zuten izebak herrian zuen "Txapel" deitutako tabernan. Hogeita sei urterekin ezkondu eta azken urteetan bizi izan den baserrira joan zen bizitzera. Han, berezitasun modura, etxekotutako bele bat izan dute azken aldi luzean.

Zintak

URN-021

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Data**: 2010-02-04
- **Iraupena**: 77 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin - Agirre, Eli

Pasarteak

1. "Otsaila" eta "katuila", biak

- **Erref**: URN-021/002
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:01:22. **Bukatu**: 00:03:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
"Otsaila" hitza erabili izan du beti; "katuilla" ere bai, katuak marruka ibiltzen direlako. "Ilbeltza" urtarrilari. Baserriak "Lobera" du izena, eta Arantzazuko fraide batek esan zienez, hori da antzina otsoak ibili ohi zirelako paraje hauetan.

2. Jatordu ezberdinetako jakiak

- **Erref**: URN-021/004
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:04:10. **Bukatu**: 00:06:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Xoxoka auzoko Pagolaerdi baserrian jaioa da Maria. 8 anai-arreba ziren. Amonak prestatutako esne-zopak taloarekin jan eta Goiburuko eskolara joaten ziren. Bazkaltzeko babarrunak azekin izan ohi zuten eta meriendatzeko txokolatea eta ogia. Afaltzeko haragi gisatua.

3. Osaba eskulangile trebea

- **Erref**: URN-021/005
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:06:26. **Bukatu**: 00:09:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Osaba elbarria zuten. Behien kopetekoak (zamarrak), abarkak eta gisa horretako eskulanak egiten zituen. Abarkak nola egiten zituen kontatzen du. Ezkondu zenean asko sentitu zuten haren falta. Abarketagintzan ere aritzen zen eta nola egiten ziren erakutsi zien. Auzoko gizonak tertuliara etortzen ziren eta "albokia" (afari-merienda) egiten zuten armonia ederrean

4. Kontu-kontari aritzeko astia hartzen zen orduan

- **Erref**: URN-021/007
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:09:50. **Bukatu**: 00:10:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Garai hartan jendea etxera etorri eta kontu-kontari aritzen zen, eta kartetan eta kantuan ere egiten zen aldi berean. Gaur ez dago horrelako girorik.

5. Bizimodu gogorra, batez ere neguko hotzagatik

- **Erref**: URN-021/009
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:12:36. **Bukatu**: 00:14:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Zortzi anai-arrebatatik hirugarrena zen. Arropa garbitzea lan gogorra zen, batez ere neguan. Iturri txiki bat zuten hiru baserrirentzako. Ez daki nola bizi ahal izan ziren ere, hotz izugarria egiten baitzuen orduan.

6. Altzibarko gobara-lekua

- **Erref**: URN-021/010
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:14:35. **Bukatu**: 00:15:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Zinkazko barrinoia erabiltzen zuten arropa garbitzera eramateko. Geroago etxe ondoan egin zuten garbitokia, baina ez zen giro izaten neguko izotzekin. Altzibarko gobara-lekua (labaderoa) nolakoa zen kontatzen du.

7. Gobara (lixiba) nola egiten zen

- **Erref**: URN-021/012
- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:15:46. **Bukatu**: 00:19:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Udazkenean ez zuten urik izaten etxean. Astoarekin errekara joaten ziren gobara (lixiba) egitera. Auzoko emakume asko biltzen zen eta tertuliarako aprobetxatzen zuten. Arropa garbitzeko prozesua azaltzen du: xaboia eman, beratu, igurtzi, astindu... Arropa zuri-zuria ateratzen zen. Hego haizearekin berehala lehortzen zen baina bestela sutondoan eskegi behar. Hamabostean behin edo garbitzen ziren maindireak.

8. Mariaren harridura orduko bizi-baldintzak oroituta

- **Erref**: URN-021/013
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:19:40. **Bukatu**: 00:21:17

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Harrituta dago Maria nola bizi izan ziren oroituta. Su txiki bat besterik ez berotzeko, kazkabarra zirrikituetatik sartzen zen etxean, hainbeste jende bizitzen... Behiek ematen zuten berotasunak epeltzen zuen pixka bat etxea.

Transkripzioa
-Nik esaten det, ordun'e bizi itten giñen. Negun ez zeik, ez kalefaziyoik, holakoxe su ttiki-ttiki bat, besteik ezer ez. Aizu, hunbeste sei-zortzi ume; amona're gogor-gogorra gendun, e; amona ta danak. Nik hoi esaten det, etxe haundiya zan, etxe zea zan. Ta nik uste det ikuilluba berotzen zan, ikuilluba iñestorrez mendiko zeatikan ekarrita haikin betetzen zan. Garua edo esaten ziyena. Haikin ikulluba bete-bete itten zuen. Ikuilluba zea egoten zan nunbaitt behien beruakin ta zeakin...
-Epela.
-Bai, bai, epela. Eta harekin danak zirrikitu guztik eta ixten zian, eta hara nolako bizimoua zeon ordun.
-Nik uste det ordun gehio pentsatu egiten zenutela naturak zer, zer gauza... Iñestorrakin zirrikituak itxi eta.
-Bai, bai, danak zirrikituk et itxi. Eta geo ikuillua don tokia haundiya zan, eta harea botatzen zuen gurdik zea, garua dana. Eta dana baztar guztik itxi ta nik uste det harekin, halaxe salbatu. Nik zenbat bider esaten det oain. Biziik nola atea giñen'e nik ez dakit. Kazkabarra itten zunian edozein txulotatik sartzen zen kuartoa're. Geo zielorrasuak eta hazitzen ai giñen bezela eman zizkiyen, diruba zan bezela. Baiño ni ni harrittuta nao oain. Harrittuta eoten naiz, e.

9. Beheko sua kendu eta ekonomika ipini

- **Erref**: URN-021/015
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:22:52. **Bukatu**: 00:24:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Baserri handia zen bere jaiotetxea. Sei-zortzi behi izango zituzten. Ekonomika bera neska koskorra zela ipini zuten. Beheko sua kendu zutenean pena eman zion.

10. Izebaren etxera bazkaltzera eskolara jaitsitakoan

- **Erref**: URN-021/017
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:28:32. **Bukatu**: 00:29:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Eskolan zebiltzala izebaren etxera joaten ziren bazkaltzera, Txapel tabernara. Oso ongi zaintzen zituen izebak, bigarren ama bezala zen berarentzat. Arropa ere polit askoa izaten zuen hark utzitakoa.

11. Arropaz ondo, oinetakoz eskas

- **Erref**: URN-021/018
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:29:40. **Bukatu**: 00:30:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Amak Donostiatik ekartzen zien arropa. Kaleko arropak eta etxekoak ongi bereizten ziren orduan. Baina arropa faltarik ez zuten. Oinetakoz, ordea, gaizki ibiltzen ziren. Eguraldi onarekin tira, alpargatekin ibili ahal zenean.

12. Oinetakoak aldatzeko lekua herrian

- **Erref**: URN-021/019
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:30:54. **Bukatu**: 00:32:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Oinetakoak aldatzen zituzten herrira heltzean etxe batean. Lokatza handia izaten zen orduan bidetan. Esker oneko hitzak ditu aldaketa egiten zuten etxeko emakumearentzat. Kafesnea ere ematen zien.

13. Farolarekin eta lasta-zuziarekin argi eginda ilunetan

- **Erref**: URN-021/020
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:32:46. **Bukatu**: 00:35:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Igandetan sei eta erdietako mezetara joaten ziren ilunetan. Farola eskuratu zuten gerora, baina kristal bat apurtu zioten eta argi gutxiago egiten zuen. Lasta-zuziarekin ere ibiltzen ziren. Estu-estu lotzen zen, bestela berehala kontsumitzen zelako.

14. Urtean behin bidegintza auzolanean

- **Erref**: URN-021/021
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:35:16. **Bukatu**: 00:36:08

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Urtean behin egiten zen bide-konponketa, auzolanean. Herriak jartzen zuen ardoa. Hala ere lohi ikaragarria egiten zen bidetan.

15. Auzolana

- **Erref**: URN-021/023
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:37:44. **Bukatu**: 00:38:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Artajorrak ere auzolanean egiten ziren. Gogoan du tortilla, gazta eta ogia ematen ziela amak langileei. Orduan asko laguntzen zitzaion elkarri.

16. Itsasondora eta Goizuetara errotara gerra ostean

- **Erref**: URN-021/025
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:41:05. **Bukatu**: 00:41:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra denboran ibili ziren gaizkien. Itsasondoraino joaten ziren errotara, trenez. Goizueta, Arano eta alde horretara ere bai astoz. Orduan jendea oinez ibiltzen zen.

17. Albaitaria presa handirik gabe

- **Erref**: URN-021/026
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:41:58. **Bukatu**: 00:44:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:
Hernaniko albaitaria bizikletan ibiltzen zen. Presa handirik gabe etortzen zen deitutakoan. Haren bisita nolakoa izan ohi zen kontatzen du. Gero motorra jarri zion bizikletari. Apaizei bezalaxe albaitariei kortesia handiko trataera ematen zitzaien.

Transkripzioa
- Betenaiyua bizikletan ibiltzen zan, Hernaniko betenaiyua, Don Pako. Eta behiyak zebaitte baldin bazun, deittu ta noizko etortzen zan hua, noizko?

Eta "Hemen naiz ba", Jose zun izena gure aittak, "Jose, hemen naiz ba" , ta "Ailleitu al zea?" ta "Bai, silla bat ekarri nazu, zea, bero dao gaur ta, hementxe pixkat preskuran eonda hasiko naiz lanian". Hara, ze estuasun ekarri zun, behiya gaizki-ta. Hari silla atea hara, Jesus, Maria ta Jose. Burutikan hola jazten zun, zea txuri bat, paiñelo zuri-zuriya izaten zun ta geo txapela haren gaiñian. Etortze zan, hola bizikletan. Hua aspertzen zanian behiya ume-iñan igual zeien ta zea, "Pantxika, Pantxika, koarto txukun bat jarridazu " zea, jantzi ta eantzi itteko behiya, zeatzeko, ume-itteko, zea ta. Jesus, Maria ta Jose, gure Jainkua. Noizko, nik ez dakit, hura jantzi ta behera etortzen zaneako, goiyen zien koartuak, Jesus, Maria ta Jose.
- Behiya ya umatua.
- Hoik xinixtekuk al dia kontu hoik? E, bai. Ta geo jarri ziyon, motorra, bizikletai.
- Bizikletai, motorra?
- Bai, motorra jarri ziyon. Ta "A, Jose, hogei urte utzi dizkit" esan ziyon, ta "ze in dezu ba" esan ziyon ta, "Bizikletai, motorra jarri ziot, ta oain, seittun etortzen nak.
- Baiña, hala're, ailletu ta haize pixkat eo prexkura...
- Aurrena bea, beak prexkatu in behar zun, aurrena bai, ta geo noizbatten lanian hasi. Hari tokiya're txukuna, txirrikitoik'e ez zuna, hari beira zea eongo hunan, zea, jantzi ta eantzi itteko, bueno, San Antoniyo.
- Zuek nerbioso ya, behia umetzen ai zala-ta.
- A ordun gaiñea, betenaiyua eta apaizak, apaizena jakiñe zan, zeatu in ber izaten zian, "Ave Maria purísima" edo saludatu in ber izaten zian, beti haik bidian topo itteko bildurrak eoten giñan, zea, bai, bai.
- Bildurrak zergatik ba, ze, ze saludo...
- Hoi, ba, saludua, bai ba, saludua in bihar.
- Ta beterinariyuai're bai?
- Betenayuai're bai. Oain majiña bider esaten diyot, Urnietako Juanito, betenaiyo horri. Ez, hoi ez zan [...], hoi geoztikakua. Hoi, ordun geoztik hasi zian, hor kotxiak eta hasi zianian, ordun ya zea, baiño, Jesus, Maria ta... hoi Hernanitikan, bizikletan, Pagolaerdiraiño juteako behiyak umia hamalau ume're ingo zittun, Jesus. Hua geo, zea, preskuran eon pixkat, hua eantzi ta jantzi, bueno, bueno, bueno, Jaungoiko maittia, Jesus, Maria ta Jose.

18. Ardo mindua behi erditu berrientzat

- **Erref**: URN-021/028
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:46:05. **Bukatu**: 00:48:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Txahala egindako behiari erreparatu egin behar zaio. Ardoa ematen zitzaien behiei, askotan tabernetan sobratzen zena minduta egoteagatik. Txekorrari gatza botatzen zitzaion amak miazka zezan.

Transkripzioa
- Baiño hoi ez da izango, behiai're kasu in berko zaio.
- A, bai. Geo bai, geo behiyai karena ondo itten dun ta erreparatu ta dana, hoixe, hoixe. Kaso in hoixe, kaso in.
- Ta karena ondo botatzeko eta ondo itteko ze, zebaitte...

- Ba hantxe, hantxe botatzen zun, beak botatzen zun, bat'e ez baldin bazun itten, ordun betenaiyuai kaso ein bihar, "beno karenik ez du ba in behi horrek" ta, ordun harek ematen zittun medikamentuk, etxetiken eta haik eman, etxea etorrita.
- Hayek osatzeko, ez dakit ondo ai naizen e? Baiño ardua edo ematen ziyen?
- Geo ardua ematen ziyen, ardua, egun pare bat, hiru batian eo, ba, zea, ardua izaten, ardua, azukria're bai, azukria nahastu ta ematen ziyen.
- Ta hori, zertako izaten zen?
- Hoi, nik indartzeko uste det nik izango zala, indartzeko, geo, pentsuba're apartekua ekartzen ziyen. Eta, ba hobeto zeatzeatikan eo, indartzetaik eo, nik ez dakit ba, hala izango zan, ardua ez dakit ze. Ardua txarra dala esaten due ta, ez dakit, ez dakit, ez dakit.
- Baiña, baserri askotan erabili da...
- Askotan, ardua, bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai. Ardua, ta gazittuba hola, tabernen batian baldin bazeguan, pues baserrita ta bialtzen zittuen, beak [...] behiyentzako, zeatzen zittuen, bialtzen zittuen, bai.
- Ta txekorra...
- Txekorra're, geo, ein bihar zitzayon, zea, txekorrai ondo erreparatu, arnasa zakan edo ez zakan eta beak, gatza bota ta behiyak beak garbitzen zun. Ta seuru txekorra ta, "a lixto".
- Gatza botata?
- Gatza botatzen ziyoen gaiñea, bai, ta beak mingaiñakin garbitzen zun. Bai, holaxe...
- Behi harek denetik izango zun, ardua, azukria, gatza...
- Hoixe, danetatiken.

19. Erakutsitako belea

- **Erref**: URN-021/030
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:48:50. **Bukatu**: 00:50:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:
Erakutsitako bele bat izan zuten. Jendeari txapela edo belarritakoak kendu eta horrelakoak egiten zituen. Azkenerako asko narrastu zen.

Transkripzioa
- Ta hemen badaukazue beste hegazti bat, zea.
- Zapalaitza?
- Belia.
- Belia, osea, belia bai, belia zan. Belia zan eo zapalaitza zan, hoi ezin goatuik nao, hortxe eoten zan, hortxe egur horren gaiñian eoten zan, danai burutik txapela igual kentzen ziyen. Ta beste batian, nere anaiya horri, Jexux, esan dedan horri're, kotxia're bazun ta, kotxe zahar bat eta, azpiko zea guztik danak zeatu're bai, arrankatu're.
- Ai ama!
- Bai, zeak, argiyan zeak eta... zizkiyon, bi bider'e bai. Kanpokuak ez zitun ikusi nahi izaten, danak ezautzen zittun harek, ez ez.
- Ordun, etxeko animali bat bezela zenuen hura.

- Igual-igual, ta geo ez dakit hua nola, geo, auzoko etxi hortara jun zan hor egondu zan bolada batian, ta geo ez dakit nola, erretiatu zan. Zikiña zan, geo gaiña, zeatu in zan, zikiña eo nunahi kaka, zea eo itten zittun ta. Ta oain, bestia hor daka, besti hoi ez du ateatzen hoi, baiña hua hemen libre ibiltzen zan. Libre ibiltzen zan, belarritakuak kendu ta, zea, bai, bai, bai, bai.

20. Ama erditzen eta medikua aldameneko ohean zurrungaka

- **Erref**: URN-021/032
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:52:00. **Bukatu**: 00:53:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:
Sekretuak izaten ziren umegintza eta sexu kontuak. Ahizpa txikiena jaiotzean medikuak amari esandakoa. Ama haurgintza minetan eta medikua aldameneko ohean zurrungaka lo.

Transkripzioa
- Baiña nik ez nun, beste gaiñontzekuan arropak preparatzen zittula ta bai, hantxe eukitzen zittun txukun-txukun, hortan, hortan hala zan, ba jaiyotzen zaneako. Eta ordun, meikuba ibiltzen zala're bai, meikuba. Ta badakizu azkenekua ttiki hau Jexux hau izandu zan, nik hamazazpi urte nittun, ta nik, guk, ordun sekretuak izeten zian gauzak ikiarri. Guk, han nik behin'e ez nun aittu hitz berdeik eta holako gauzik, oain aitzen diran bezela neska-mutillak, ez dakit, han sekulan ez gendun, guk ez gendun ezer'e behin'e hitz ein, ez gendun. Oain bezela, sexue esaten duen bezela ta, nik etxe hartan behin'e ez gendun guk aittu, e. Oin esaten det, gu bi ahizpak bai, baiña han ez giñun guk sekula, oin ez giñun holako istorik eta ez dakit zer. Eta, hola, eta [...] nik ez dakit, ordun, o Donostin esniakin izango nitzan o ze nola izango nitzan eo, zea, [...], ta meikuk esan ziola, "neska, heorrek in biherko den ba" esan ziyola. Eta aldemeneko oyian lo nola jarri zitzayon meikuba. "Oaindikan denboa dakan, ta heorrek in biharra dakan" esan ziyola. Eta hemen nola aitzen zan istoriyok bai, hoik esaten zittun, eta hua beste oyian zurrunkaka lo.

21. Teresa, oso komadrona ona

- **Erref**: URN-021/034
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:54:18. **Bukatu**: 00:55:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Mariak etxean izan ditu ume guztiak. Oso komadrona ona izan dute, Teresa. Ordubeteko bidean etortzen zen gauez osaketak egitera. Ondoren afaldu eta gustura itzultzen zen bere etxera.

22. Atsolorra

- **Erref**: URN-021/036
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:55:40. **Bukatu**: 00:57:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:
Haurra jaio eta handik hamabost egunera, auzoko emakume guztiak ama berriaren etxean bildu eta merienda egiten zuten: atsolorra. Xerra piperrekin, txokolatea boladuarekin... merienda ederra.

Transkripzioa
-Bataioan inguruko ospakizunak eta.
-A, atsolorra. Atsolorra, bai. Ba haurra jaiyo eta handikan hamabost egunera edo hola. Bai. Merienda, auzoko emakumiak danak bildu eta merienda izeten zan. Atsolorra, bai. Ya ahaztuta [neukan].
-Nun juntatzen zinaten edo?
-Ahal zan tokin. Sukaldian tokiya izango zan eta. Sotua're haundi xamarra izaten zan ordun basarritan eta han mahaia erdi-erdin jarrita. Danak sillak edo zerak bilduta. Ahal zan bezela. Eztoo. Eta goatzen zat piper moruakin xerrak izaten zien. Urte guzin ez zien jango baiño ordun jaten zien. Eta geo txokolatia. Eta ura zeakin, esponja... Ez dakit zuk baakizun, "bolatuk" esaten diye oain. Txuri batzuk. Ez dakit, oain'e izaten emen dia, e. Aurreko batian ez dakit zeiñi esan nion, eta oain'e izaten ziela esan zien pastel haik.
-Jatekuak hola?
-Urai sartutzen ziyen. Oain bolatuk esaten diyela uste det. Esponjak esaten giniyon guk. Eta ur preskuai basuan sartzen zien boladua. Merienda elegantia itten zan ordun, e!
-Espeziala.
-Espeziala. Geo baten batek ekarriko zittun zeak'e, goxokik'e, pastelak eta zeak eta. Danak reuniyuan. Dozenerdi..., ze, auzoko emakuma guzik. Atsolorra? Hoixe.
-Gizonik?
-Gizonak etxian baldin bazian eta hoixe, izango zian.
-Festa politta izango zan?
-Festa politta itten zan.
-Oparirik ekartzen zuen jendiak?
-Hoixe esaten dizut ba, ekarriko zuen zerbaitt. Ez naiz goatzen opariya baiño gailletan batzuk ekarriko zittuen. Nik hala uste det, e. Ez dakit, ez dakit.
-Umiaantzako...
-Ez naiz goatzen hoi, ez naiz goatzen umientzako ezer ekartzen zueniken.

23. "Elizan sartzea"

- **Erref**: URN-021/037
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:57:37. **Bukatu**: 01:00:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Ama berria zortzi egunez ohean egon ohi zen oilo-saldu hartuz. Buruan teila bat ipinita irten behar izaten zuten garai batean etxetik, "elizan sartzea" zeremonia egin arte. "Elizan sartzea": elizpean apaizak errezo batzuk egiten zituen ama berria elizan sartu aurretik.

24. "Gorputz-bidea", etxetik elizara arte

- **Erref**: URN-021/039
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 01:02:00. **Bukatu**: 01:05:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Garai batean "gorputz-bidea" (etxetik elizara hilotza eramaten zena) nondik nora zihoan kontatzen du. Bizkarrean eramaten zen hilkutxa lau gizonen artean. Urruneko baserritakoei atseden hartzeko mahaiak ipintzen zitzaizkien bidean.

25. Lutoa

- **Erref**: URN-021/040
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 01:05:20. **Bukatu**: 01:06:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Lutoz janzten ziren norbait hiltzen zenean. Bestetarako ez omen zen dirurik izango baina horretarako bai. Arropa tindatu egiten zen gehienbat.

26. Oiartzungo euskara oso polita

- **Erref**: URN-021/042
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 01:07:05. **Bukatu**: 01:08:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Goizueta edo Oiartzun aldekoei ondo ulertzen die baina Azpeitia eta Durangokoei, esaterako, ez. Oiartzungo euskara gustatzen zaio.

27. Zoruak eta arropak usain ona

- **Erref**: URN-021/045
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 01:11:45. **Bukatu**: 01:14:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Zurezko zoruari argizagia nola ematen zioten. Garbitutako arropak zein argizagia emandako zoruak askoz ere usain hobea hartzen zuten oraingoek baino. Errekako ur garbia bezalakorik ez omen dago lixiba egiteko. Menda ere ipintzen zuten geletan usain ona egon zedin eta arkakusuak uxatzeko.

28. Gurutzea eta elorri zuria babesgarri

- **Erref**: URN-021/046
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 01:14:12. **Bukatu**: 01:15:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Erramu Egunean bedeinkatutako gurutzeak ipintzen ziren eta Santakruz egunean elorri zuria babes gisa. Apaiza ere urtero etortzen zen bedeinkazioak egitera. Oilaskoak ematen zitzaizkion trukean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com